


Arrasate

P R E S S U

1999ko
Uztailak 2
457. zenb.



San Joan, etorri ahala, joan

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KIROLAK: KARATE TXAPELKETA
 ËUREN IKUSPUNTUTIK: ITXARO ARTOLA • KULTURA ELKARRIZKETA: OXEL ZABALO

Atsedena hartzeko



BEHIN BETIKO SOLUZIOA
%100 autoerregulagarria

ordua iritsi da.



Zure Ametsik **Ederrenak**
Jaiotzen diren Tokian.



Neurriko Armairua behar baduzu...



...zatoz Onenak ezagutzera.

Izpizua, 5
20120 **HERNANI**
Tel.: 943 556 201

Ferrerías, 28 C
20500 **ARRASATE**
Tel.: 943 797 692

Pº Colón, 20 (**GROS**)
20002 **DONOSTIA**
Tel./Faxa: 943 321 693

Udal berria

Alkatea aukeratu bezperan ari naiz eta, beraz, nik orain ez dakidana jakiteko abantaila izan dezakezu. Baina ez dut uste aukeraketaren emaitzak, edozein dela ere, artikulua balio gabetuko didanik, igarlearena baino aholkulariarena egitea baitut helburu.

Dena normal, Xabier Zubizarretak beharko luke hurrengo alkate. Ez du alperrik 900 botoren aldeaz irabazi, eta hori EAJ-EA koalizioarekiko 500 boto atzetik abiatu ondoren. Kasik esan daiteke herritarrek alkatea bera ere aukeratu nahi izan dutela. Hala ere, sozialistek eta popularrak izan dezakete EHri alkatetza kentzeko tentazioa. Nahikoa lukete horretarako beraien botoak debalde Jose Mari Loitiri ematea. Kasu honetan ez litzateke legealdi erraza izango.



Mikel Irizar

“Esan daiteke herritarrek alkatea bera ere aukeratu nahi izan dutela”

Baina bestela ere ez. Udal berria nioen izenburuan, baina udal zaharra esatea egokiago litzateke. Zinegotzi gehienak errepikatzailak dira, eta batzuk —Txiron bera edo Paco Garcia— ia betikoak. Istilu eta arazo gehiegi izan dituzte iraganean, orain bat-batean ondo konpontzen hasteko.

Hain zuzen, horretara dator nire lehen aholkua. Buruek elkarlanerako zailtasunak badituzte, utz ditzatela besteekiko harremanak ondokoen eskuetan. Ez ditut guztiak ondo ezagutzen, baina esango nuke Ino Galparsoro, Maria Angeles Inurritegi, Blanca Roncal eta Amaia Larrañagaren artean arazo gutxiago egon daitekeela elkar hartzeko. Denak emakumeak izateak ere lagunduko luke, seguruenik.

Udalan egin beharreko lanaren 10etik

9, bestalde, kudeaketa lana da. Ofizioa, gogoia eta elkarlanerako giroa besterik ez dira behar gaiak aurrera ateratzeko. Eta ez du zentzu handirik goragoko erakundeetako eskemak errepikatzea.

Adibidez, gobernu itunak egitea legealdi osorako. Egokiago ikusten dut gai bakoitzaren aurrean adostasuna landu eta nagusitzen den aukera aurrera ateratzea. Gaien arabera, gehiengo ezberdinak daude udalbatzan, eta ez da ona politika orokorrak dinamika hori estaltzea. Komenigarri da alderdi guztiak Gobernu Batzordean egotea.

Eta kudeaketarako ez diren gaietan —gogoratu, %10— egungo egoera politikoak errazago egiten du elkarbiltza udalan ere. Goi aldean urratsak egingo dira nahitaez, jarrerak hurbilduko dira eta urte asko baino lehen irtenbide egonkorra emango zaio gatazkari. Eta udaletik gorantz egin beharreko lana, adostu behar diren gaien artean beste bat da, gehiengo ahalik eta zabalenez erabakiko dena. Ez luke behintzat eguneroko jarduna oztopatu behar. ■

“Urtero joaten naiz Musakolara eta oso gustura, gainera. Auzoen arteko jairik onenak egiten dituzte. Zorionak beraietzat”

Inigo Gurrutxaga “Arristi”

11:30

ordu horretan hasiko da ATBren saio berezia larunbatean

ATBk saio berezia prestatu du, Deba Garaiko udalbatzak nola eratuko diren jakinarazteko. Ordu eta erdiko saioa izango da, Maria Agirrek, Mikel Irizarrek eta Mikel Lezamizek aurkezturik. Ekainaren 13ko saioa gogoan duzenok, ez galdu biharkoa.

ITURRI ONETIK

Txiron alkate

Badirudi baietz, Xabier Zubizarreta izango dela Arrasateko hurrengo alkatea. Asteazken zehar makina bat zurrumurru zabaldu dira herrian, esanez PSE-EEK eta PPK Jose Mari Loitiri eman ziezaioketela botoa, ezerekin truke, EHk alkatetza ez hartzeko helburu bakarrarekin. Horretarako, jakina, behar zen EAJ-EAkoek beren zerrendaburuari botoa ematea. Horrela, Loitik 12 boto izango litzuzke. Hau da, erabateko gehiengoa eta sekulako patata beroa eskuetan. Baina ez dirudi hori gertatuko denik.

Jakin izan dugunez, asteartean egindako bileran Arrasateko alderdi abertzaleek erabaki zuten boto gehien jaso zuen zerrenda errespetatzea. EAJ-EAko zinegotziek, beraz, zuriz emango dute botoa. Horrela ziurtatu egingo litzateke Xabier Zubizarreta alkate izatea.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolara kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zalio, Arantza Lagunilla, Arantza Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubue- lo. **Asteburuetako berriemakalariak:** Monika Belastegi. **Bekadunak:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmela Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaka- keta arduradunak:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubilla- ga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Anartz Agirre



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 2**
• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 3**
• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Igandea, 4**
• Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Astelehena, 5**
• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Asteartea, 6**
• Gaeuz eta egunez: Iturriotz, Español
- Asteazkena, 7**
• Gaeuz eta egunez: Korkuera, Musakola
- Osteguna, 8**
• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

BASTIDANEAN ZUZEN GABILTZA

Aurreko *Arrasate Pressen* gure akademiari buruzko gutun bat agertu zen, zerbait puntu jorratuz. Hala ere, erantzun aurretik aipatu nahi genuke geure helburu nagusia zuzen eta gizatasunez jokatzela, eta horrela egiten saiatzen garelara.

Egia da Bastida Akademiak hazkundea izan duela. Urte hauetan hemeretzi lanpostu sortu ditu, ikasketa berriak abiarazi eta estatu mailako ikasketa sare baten sortzaile izan da. Eta dena Arrasateetik egin du.

Lana egiten dugunon artean zenbait sindikaturen aldekoak daude, zabaltasunez eta askatasun osoz egin ziren hauteskundeen emaitzek erakusten dutenez. Eta gutuna idatzi duen sindikatuak ongi daki hori, ez beza pentsa karta idatzita, bere burua engainatu duenik. Beharbada besteren bat engaina dezake, baina ongi dakite gezurretan dabiltzala.

Bigarren puntua argitzea ere komeni da. Pertsona bat aukeratu genuen lan garrantziko bat egiteko, gerora gure zuzendaritza taldean sartzeko asmoz. Baina bere kontratuaren epea bukatu zenean, legea beteaz, zuzendaritzak erabaki zuen aurrera ez egitea, beste enpresetan egiten den moduan, berdin dio kooperatiba edo anonimo, berdin industrian edo irakaskuntzan.

Eta, gainera, lanpostua betetzeko beste pertsona bat aukeratu zuen, jantziagoa izango zelakoan. Beraz, ez da lanpostua desagertu, indartu baizik.

Hala ere, baliteke norbait minduta egotea, baina gure nahi bakarra izan da irakas-kuntza sendoa eskaintzea. Arrasateri ondasuna ekarri nahi diogu, gizalegea errespetatuz. Kasu hauetan ere horrela jokatu dugula uste dugu. Beti ere zuzentasunez.

Bastida Akademiako zuzendaritza

Igandean Arrasate Press berezia kioskoetan

Larunbatean Arrasateko eta Deba Garaiko udalbatzak eratuko direla eta, igande goizean bi orrialdeko *Arrasate Press* berezia izango

duzue kiosko eta okindegietan. Egunkari tamainakoa, dohainik banatuko da egunkaria edo ogia erosten dutenen artean.

Larunbatean Arrasaten eta inguruko herrietan gertatzen denaren berri izango duzue. Igandean, beraz, eskatu *Arrasate Press*.

Siki Siki

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer da sanjuanetan gehien gustatu zaizuna?

Iragan diren jaietan makina bat ekitaldi izan dira aukeran



Joakin Erguin
(76 urte)
Erretiratua

Jaietan egin duen eguraldia gustatu zait bereziki. Ostera, ekitaldien artean, erraldoiak eta kilikiak izan dira niretzat onenak.



Rosario Errasti
(62 urte)
Erretiratua

Seme-alaben esanetan, sekula baino hobek izan dira aurtengo jaiak. Oso ederto ibili dira, dantzan, plazako afa-rian... Dena ederto.




Maite Perez
(40 urte)
Etxekoandrea

Jaietan egon den guztia gustatu zait, danborrada, hirugarren eguna bereziki, oso ondo egon zen... Lehengo denboretan moduan.



Arantza Iriondo
(36 urte)
Andereñoa

Aurtengo sanjuanak primerakoak izan dira. Kaleko giroa oso ona izan da eta San Joan bezpera sekulakoa!



Igor Martin
(28 urte)
Langilea

Ez naiz hemen egon. Aste osoan jai izan dut eta nahiago izan dut kanpora irten lasaitasun bila.



Antonio Peña
(43 urte)
Langilea

Ez naiz Arrasaten izan. Lan kontuak direla eta, kanpoan ibili naiz.



Eider Sanz
(12 urte)
Ikaslea

Buruhandiak, barrakak eta dantza, batez ere.



Ander Soto
(7 urte)
Ikaslea

Niri buruhandiak eta zezenak gustatu zaizkit.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Sagardotegia
ITURRIETA
Astelehenetik asteazkenera enkarguz
Ostegunetik igandera zabalik
MENU ESKAINTZARIK ZABALENA AUKERAN
Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
Setatik Setara.
Tel.: 943 79 26 99

2 ostirala

■ ZINEA

Buscando a Eva, Alai zinemán, 22:00etan.

■ EUSKAL JAIA
ESKORIATZAN

•11:00 txalaparta, dantzari, triktilari, txistulari eta bertsolariek alaitua, talo eta sagardoarekin.

•13:00 txikiteoa.

•14:30 herri bazkaria, bertsolari eta guzti.

•19:00 kalejira *Txatunga Bembe* taldearekin.

•22:00 *Alaitz eta Maiderren* emanaldia.

•24:00 "Bedaioko ingurutxua" dantza.

3 larunbata

■ ZINEA

Arlington Road, Alai zinemán, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ SANPEDROAK

•12:30 "Eskoriatzako Bainu etxea" liburuaren aurkezpena.

•17:30 herri kirolak, Gorosarri plazan (eguraldi txarra egingo balu, pilotalekuan). Erakusketak museo-eskolan.

■ ZUBILLAGAKO JAIK

•09:30 diana, dultzainero eta trikitixarekin.

•12:00 sagardo eta gazta dastaketa.

•14:30 herri bazkaria.

•17:00 umeentzako jolasak eta txokolatada.

•18:00 mus partida bizkorrak.

•22:30 mozorro dantza lehiaketa.

•23:00 dantzaldia *Muxutruk* taldearekin.

■ KONTZERTUA
JAM ARETOAN

Bad Manners, Espias Secretos eta *Iskanbila* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan gaueko 22:00etan. Sarrera 1.500 pta.

■ ZUBILLAGAKO JAIK

•09:30 diana dultzaineroekin eta etxafleroak.

•10:30 meza.

•12:00 ongietorria eta hamaiketako jubilatupei.

•12:00 bertso jaialdia, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Unai Iturriarekin

•17:00 zinta lasterketa.

•20:00 erromeria pilotalekuan, *Hator* taldearekin.

4 igandea

■ ZINEA

Arlington Road Alai zinemán, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ HARROBIK
EZAGUTZEN

Hainbat talde ekologistak, sindikatuk eta alderdi politikok mendi ibilaldia antolatuko dute herriko harrobiak ezagutzeko. Irteera 08:30ean izango da, Portaloian.

5 astelehena

■ ZINEA

Arlington Road, Alai zinemán, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ AUZOLANDEGIK
LEZETXIKIN

12:00etan ongietorria egingo zaie udaletxean Lezetxikiko aitzuloan auzolandegietan arituko direnei.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak lanpostu hauek hornitu nahi ditu:

Funtzionario plazak:

- Gidari bat
- Peoi bat
- Ehorzle bi (egun erdiz)

Aldi baterako lanpostuak:

- Ingurugiro Eskolako irakaslea
- Euskaltegiako irakasleen lan-poltsak.

Oinarriak: udaletxean jaso daitezke.

Eskabideak aurkezteko epea: 99/07/12rarte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

PRESTAKUNTZA
PROFESIONALEKO ZENTRUA



- Ile apaingintza
- Estetika
- Kiromasajea

EUROPAKO TITULU OFIZIALA



RFS: 22598

- Klinika laguntzailea
- Umezaintza
- Geriatria laguntzailea
- Hortzetako klinika

Independentzia, 22-1 • GASTEIZ
Tel.: 945 12 07 32

6 asteartea

■ ZINEA

Arlington Road, Alai zinemán, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

Rozioko erromeria igandean



Igandean, uztailearen 4an, Rozioko Ama Birjinaren erromeria ospatuko dute Al Andalus elkartekoek. 09:30ean talde errejionalen aurkezpena egingo da Al Andalus elkartean, ama birjinaren aurrean. 10:30ean Santa Teresako elizan meza errozieroa, Pablo Barrena parrokoarekin eta Al Andalus elkarteko abesbatzak eta Getafeko andaluziar etxeko abestaldeak abesturik. (Larunbatean gaueko 23:00etan Al Andalus elkartean abesbatzak emanaldia eskainiko du).

11:30ean Arrueneko parkerantz abiatuko da erromeria, Blanca Palomari laguntzen.

Donostia, Irun, Lasarte, Andoain, Audio, Gasteiz, Miranda de Ebro eta beste hainbat lekutako ordezkariek egingo diote lagun ama birjinari.

19:00etan ama birjinaren itzulera elkartearen egoitzara. Egun osoan zehar, Arrueneko parkean Andaluziako produktuen dastaketa eta sebilla-dantzak izango dira.

8

osteguna

■ ZINEA

Torrente, el brazo tonto de la ley filma eskainiko da Montterronen, Aire Zabaleko zine zikloaren barruan, 21:30ean. Sarrera 450 pta kostako da.

■ ARGAZKI LEHIAKETA

“Gazteak eta 2000. urtea” X argazki lehiaketa jarri du abian Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera. Izenak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da. Sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Berri gehiago Udaleko Gazte Zerbitzuan (943 77 00 65).

■ KANPALDIA DEGURIXAN

Degurixako kanpaldira joateko izen ematea zabalik dago. Elbarrituentzako egiten den kanpaldi hau 3.000 pta kostako da. Irteera uztailearen 23an.

■ SOLDADUGAIEI OHARRA

Soldadugaiak bigarren motako luzapena egiteko aukera dute udaletxean, uztailearen 20a arte. Goizez eta arratsaldez.

■ MUSAKOLAKO ASTOA

Musakolako alkatetzak bi kontu korrante ireki ditu Astoarri egindako monumentuaren gastuak ordaintzen laguntzeko. Kutxa 2101 0097 46011.4.46854.9 eta

Euskadiko Kutxa, 3035 0055 10 055.1.03440.0

■ KILOMETROAK 99

Kilometroak 99ko materiala dagoeneko salgai dago Naroki liburundean eta Hiper Eroskin.

■ 69KO SOLDADUGAIAK

1948an jaiotakoek urteroko bilkura egingo dute uztailearen 17an. Eguerdian meza izango dute San Joan parrokan. 14:30ean bazkaria izango dute Mondragon hotelean. Interesatuak aurrez 5.000 pta sartu beharko dituzte Kutxako 2101 0097 49 0122338817 zenbakian edo Euskadiko Kutxako 3035 0055 16 0551032820 zenbakian.

■ SAN KRISTOBAL EGUNA

Garraiolarien patroien eguna ospatuko da uztailearen 10ean. Deba Garaiko kamioilariek meza izango dute San Viatorren. Ondoren, Arrueneko zelaian bilduko dira kamioiak bedeinkatzera.



Lan eskaintza

Kazetaria

Baldintzak

- Euskara ondo menperatzea.
- Kazetaritza ezagutzea.
- Gida baimena eta autoa.

Langunearen beharrak

- Asteburuetan eta jaiegunetan kazetari lanak egitea Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistan.

Curriculumak aurkezteko epea uztailearen 14an bukatuko da. Curriculumak ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira.

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

ARRASATE PRESSEko harpidetza berritzu nahi duzula?

Arrasatek kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?

ORAINTXE DUZU GARAIA



Gure kontu korrantean 3.000 pta.ko diru sarrera egin dezakezu uztailearen 16a baino lehen, kontu korrante zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel.: 943 71 25 11 • Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE

USTEAK USTE

Mezua alderdiei

Ekainaren 13ko hauteskundeetan herriak mezu garbi bat eman zien alderdi politikoei: ez jarri edonor alkategai.

Jende asko egon da, bai jeltzaleen artean eta baita Eusko Alkartasuneko jarraitzaileen artean ere, udal hauteskunde hauetan Arrasateko zerrendari eman ez diona botoa. Zein zen oztopoa? Alkategaia.

Elorrión EAJ-EAK irabazi zuen, boto pilo bat galdu eta gero. Oraingo alkate jeltzalea alkate jarri zenean zortzi zinegotzi zituen. Ekainaren 13an lau irabazi zituen, EHrekin berdinduz. Batzar Nagusietako eta Europako hauteskundeetan EAJ-EAK 300 boto gehiago jaso zuten udal hauteskundeetan baino. Zein zen arazoa? Alkategaia.

EHk, bestalde, ia Euskal Herri osoan gora egin zuen. Aramaion, berriz, beheara. EHko zenbaitetik esanda, Batzar Nagusietako eta Europako bozketetan EHri eman zioten botoa. Udal hauteskundeetan, aldiz, ez. Arazoa? Alkategaia.

Ikasi nahi duenak, ikas beza.

Joxe Aranzabal



Euskara "politikoki zuzena"

* Itxaro Artola

Askotan esaten da alderdi politikoak eta erakunde publikoak gizar-tearen atzetik doazela eta euskararen gaian ez dira salbuespen. Horren lekuko, azken udal hauteskundeak. AEDko Kanpo Harreman Taldeak, hauteskunde hotsak entzun orduko, zera eskatu zien udalbatza ordezkaritza zuten alderdiei: kanpainan zehar euskara, gutxienez gaztelania beste erabiltzeko eta, hurrengo udalbatza euskaraz jarduteko gauza izan zedin, lortzea espero zuten zinegotzi adina hautagai euskaldun aurkezteko.

Gero, kanpainaren jarraipena egin zen, kalean, etxetara zuzenean eta herriko hedabideetan egindako propagandan euskarari emandako tratamendua aztertzeke. Kanpainari dagokionez, euskararen idatzizko presentziak gora egin du ehunekoetan. Alderdi Popularrak izan ezik, guztiak zaindu dute euskara, gutxi edo asko, aurrekoan baino gehiago,

lelo, hormirudi, eskuorri eta gutunetan.

Dena dela, oraindik alderdi abertzaleak dira euskara eta gaztelania erdiz erdiz erabiltzen dituzten bakarrak. Ezin esan, beraz, hauteskunde kanpaina honetan euskara garai- le irten denik eta are gutxiago, zenbait alderdik hautagai zerrendak osatzerakoan agertu duten jarrera axolagabea- ri erreparatuz gero.

Zinegotzigaien hizkuntza gaitasuna ez da lehentasunezko irizpidea izan alderdi guztientzat eta, ondorioz, udalbatza berrian 21 zinegotzitik zazpi ez dira euskaldunak izango. Alde horretatik, lehengoan gaude, edo goal okerrago, orain arteko

udalbatza alderdi bakarra zelako elebiduna ez zen bozeramailea zuena. Aurrerantzean bi, behintzat, izango dira. Arrasateko biztanle, elkarte eta enpresa asko euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu eta urrats sendoak egi- ten ari diren bitartean, udalbatza kontrara doa, eredu izan eta bide bertsutik jo ordez. Gauzak horrela, kontraesan- korra da, itxurakeria hutsa ez esateagatik, alderdi politikoe- k "Udalean Euskararen Era- bilera Normalizatzeko Plana" diseinatu eta abian jartzeko eragozpenik jarri ez, baina erakundearen erabakigune nagusia, eta beraz, esangura- tsuena, euskalduntzen joate- ko aukera ezin hobea esku- tan izan dutenean, paso egi- ten utzi izana. Honezkero, bihar eratuko den udalbatza- ri egunez eguneko lanean euskarari mugak jarri barik, jarduteko eska- tzea baino ez zaigu gera- tzen; euskararen erabi- lera "politikoki zuzena" barik, euskararen era- bilera politika zuzena egin dezatela, alegia.

* AEDko teknikaria

“
Udalbatza berrian
21 zinegotzitik
zazpi ez dira
euskaldunak izango
”



beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE



- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE

IKASTARO TRINKOAK

ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

UDA HONETARAKO

bai&by MULTIMEDIA-SISTEMA

- 09:00 etatik 21:00 etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 18 urtetik gorakoentzat

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

*ingelesa,
frantsesa eta
alemana*

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

bai&by

Arrasate Araba Hiribidea, 4 • Tel.: 943 712055

Oñati Olakua, 14 • Tel.: 943 716000

Gasteiz Florida, 8A • Tel.: 945 150155

astea bi hitzetan

■ Nortasun agiriak

Nortasun agiriak egiteko bigarren txanda astearte honetan izan da. Oraingoan, 189. zenbakitik 363. zenbakiraino hartuta zutenen agiriak egin dira. Ordutegia, berriz, aurreko aldiko bera izan da.

Hurrengo txanda, uztai-lean izango da eta kasu honetan, 364. zenbakitik aurrerakoak joan beharko dira. Dena den, oraindik eguna zehazteke dago.

Gogoratu, beti ere, bi argazki eta nortasun agiri zaharra eraman beharko direla derrigorrez. Egin beharrekoak egin ostean, egiaztagiri bat emango dute eta hilabete baten buruan, hementxe izango da nortasun agiri berria.

■ Oporrak

Arrasateko ikasle gehienak oporretan dira dagoeneko. Batzuek pasa den ostiralean hartu zuten jai eta beste batzuek aste honetan zehar. Kontuak kontu, udako hiruhilabeteko oporraldia dute orain aurretik.

Batzuek jolasteko, besteek kirola egiteko edo lagunekin ibiltzeko eta zenbaitzuek ikasteko ere aprobeztatzen dituzte egun preziaztu hauek.

Mondragon Unibertsitateko fakultate batzuk dira oporrak hartzeko falta diren bakarrak.

Noski, Umezaintzaren kasuan, uztai-lean zehar ere irekita egongo da zerbitzu honen beharra duenaren edonorentzat.

■ Omenaldia

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean 98/99 ikasturteari dagokion amaiera ekitaldia egin zen pasa den ostiralean. Ikasturte honetan Irakasle ikasketak bukatu dituzten ikasleek agiriak jaso zituzten. Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektore berria ere hantxe izan zen.

Haur Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza eta Hezkuntza Bereziko adarretan 100 bat ikaslek bukatu dituzte aurten ikasketak.

Aipagarria da, gainera, Hezkuntza Bereziko espezialitatean Eskoriatzako fakultateko lehenengo promozioa izan dela aurten goa.



■ Musakolako astoa

Musakola auzoak lortu du bere iruditzen duten astoari monumentoa egitea. Hantxe ezarri zuten ekainaren 18ko larunbatean, Kasonategiko plazan 300 kiloko brontzeko eskultura. Lourdes Umezez eibartarra izan da egilea.

Astoaren azpian, Arrasateko hainbat gauza adierazgarri lurperatu zituzten, besteak beste, JMA enpresako giltzak, auzoko jaietako egitaraua, urrezko astokiloa eta Arrasate Presseko azken alea.



“Ez dut uste kooperatibek zuzenean eragin dutenik (euskararen berreskuratzean). Baina hauek lan egiteko modu berezi bat gizarteratu dute, kultur elkarteetan... Hauei esker, adibidez, kultur nahasketa itzela dago eta herria zabalago eta aktiboago bihurtu da. Hauek ekarri duten egoera ekonomiko egonkorra ere faktore bat da. Beste alde batetik, datu ziurrik ez daukagun arren, kooperatibetako euskararen erabilera orokorrean enpresa anonimoetako bano handiagoa izanik ere, ez dirudi uste bezain ona denik, giroa positiboa bada ere”.

J. FELIX DIAZ DE TUESTA

Euskaldunon Egunkaria
1999.6.23

**Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

OSORIK
PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Heldu da oporrak gozatzeko garaia!

Azkenean amaitu dira azterketak! Egun gogorak izan dira eta saria merezi duzu. Horregatik, uztailean eta irailean zatoz LIRAINera eta egizu kirola, ondo pasatuz.

Matrikularik gabe, hileko kuota ordainduz bakarrik.

- Ordutegia: 10:30-11:30
- Egunak: Astelehena-Asteazkena-Ostirala
- Ekintzak:
 - Aerobic
 - Step
 - Power dunbell (Muskulazioa eta tonifikazioa, musika erabiliz).
- Prezioa: 4.900 pta.

Taldea uztailearen 5ean hasiko da.

Deitu eta informa zaitez; larunbat goizetan ere hartuko zaitugu.



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17



TOTTEM

%50

Soilik hemen aurkituko duzu

Zapatak • Arropak • Tatuajeak • Bodypiercing-a

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE

Harrobien eragina ezagutzeko irteera

Iganderako mendi ibilaldia eratu dute Deba Bailarako zenbait taldek, harrobien aurkako kanpainaren barruan. Ibilaldia Portaloitik aterako da goizeko 08:30etan eta hiruzpalau ordu iraungo du Arrasateko harrobietan zehar.

Modu honetan, jendeak herriko harrobien egoera zuzenean ikustea nahi dute antolatzaileek, izan ere, salatu zuten moduan, "egoera larria bizi da Arrasateko harrobiekin".

Idatzi batean diote, Gipuzkoan 13 harrobi badaude, horietatik hiru Arrasateko egoeta larregikoa dela. Itxi diren hiru harrobiak ez direla berreskuratu salatu zuten eta Kanpanzar eta Kobate harrobiak ixtea ere eskatu zuten.

San Joxepeko harrobiari buruz, berriz, adierazi zuten harrobi hori ustiatzen duen



Asteartean egin zen prentsaurrea osoko bilkura aretoan.

enpresak dagoeneko hitzartu duela udalarekin hemendik urte batzuetara ixtea eta zoru hura industriagune bihurtzea. Hori dela eta, ez dute eskatu hura ere ixtea.

Hau guztia, ondorengo taldeek izenpetu zuten: Eko-

logistak Martxan-EKI, Arrasateko AHTren Aurkako Asanblada, Besaide, Murruxiko, Eskoriatzako Mendi Saila taldeek, ESK sindikatuak, Zutik eta Herri Batasuna alderdiek eta Arrasateko Jarraik.

Parrokiako santua itzuli da



Batzuen ustez San Petri da, beste batzuek, ordea, Betiereko Aita dela diote. Kontuak kontu, XV. mendeko irudia da. Orain hamar bat urte bere lekutik jaitsi zen artelana zela konturatzean. Artelekura bidali zen berrizteko. Bide batez kopia zehatz bat egin zitzaion. Orain, berriro ere Iturriotz kalera begira dago. Hori bai, kopia da hemen jarri dutena, badaezpada, eguralditik edo bestelako kalteetatik babesteko. Parrokia berritzen aritu den taldearen beste lan bat izan da.

Aramaioko parrokian egindako lana eskertuz



Eugenio Nafarrete eta Julian Bengoa Aramaioko parrokiako sakristauek eta Miren Aginagalde eta Miren Altuna parrokiako garbitzaileek, aramaioren omenaldia jaso dute urte askoan parrokian makina bat zeregin bete dutelako. Aramaioarrek omenaldia egin nahi izan zieten ekainaren 20an, igandean.

Atxiloketa

Asteartean Ertzaintzak J.C.A.G., 25 urteko arrasatearra atxilotu zuen Garro Jenerala kaleko taberna batean. Ertzaintzak jakitera eman duenez, gazteak 250 gramo hatxis zeramatzan izkutaturik. Espetxe aurrekariak zituelako eta zeraman hatxisa saltzeko zuelakoan, Ertzaintzak atxilotu egin zuen.

UNZUETA
J A T E T X E A


Karta
Menu bereziak
Eguneko menua
Plater konbinatuak

Zabola auzoa. ARAMAIO.
Tel.: 945 44 50 95

Oroitzapenerako azken argazkia



Asteazkenean, legealdi honetako azken osoko bilkuraren ostean, lau urteotan udalbatzan aritu diren zinegotziak argazki honetarako batu ziren.



ARRASATEKO

UDAL

EUSKALTEGIA

EGA

azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa

- **Iraupena:** irailaren 1etik 28ra.
- **Ordutegia:** 08:00 - 13:00.
- **Matrikula epea:** Uztailaren 1etik 15era.
- **Prezioa:** Matrikula: 13.000 pta.
Materiala: 2.500 pta.

Plaza mugatuak

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
ARRASATE

Tel.: 943 79 70 77 edo 943 79 77 88

Zaldibarko Futbito Txapelketa: zuen laguntza ezinbestekoa izan da

- Aldapa Bar
- Arrasate Kirolak
- Bertize Dantzalekua
- Bikain Akademia
- Dotakon gazteentzako arropa
- Ederra Taberna
- Ekaitz Taberna
- Elisabeth
- Eskiña Taberna
- Etxerat Taberna
- Halcon Bidaiak
- Errasti Kristaldegia
- Iluntz Taberna
- Import Arrasate S.A.
- Irati Taberna
- Iturriotz Taberna
- J.M.A.
- Kajoi Taberna
- Lasagabaster
- Mikel Lasa S.A.
- Mugarri Ford.
- Muruamendiaraz gozotegia
- Muxibar Pizzak
- Okorotegi Kafetegia
- Oskar Vitoria bitxitegia
- Ostantz Taberna
- Rumba Taberna
- Ziorla Taberna
- Zutarri eraikuntza enpresa
- jokalariak



Eskerrik asko

Bonba Taldia

Aupa Sanjuanak



“**S**an Joan, San Joan, nekez etorri eta bizkor joan”. Aurten ere horrelako zerbait gertatu zai-

gu. Konturatu orduko, datorren urteko jaien zain geratu gara. Eguraldi ona, danborrada eta buruhandien bilkura

nabarmenduko genituzke aurten. Jendea beste batzuetan baino gusturago geratu dela esan liteke.



EZINBESTEKOAK

Jaietan etengabe ikusten aritu garen taldea dugu hauxe: Lore Gazteak dantza taldeko txistulariak. Goizez, arratsaldez edo gauez, hortxe ibili dira, jo eta fuego, kalerik kale, geratu barik. Sanjuanen bezpera honi hasiera emateko ardura ere eurena izan zen.

23

ASTEAZKENA

KALEA JENDEZ GAINEZKA

Ikusmin handia zekarren berarekin San Joan bezperak. Batetik, jaien adierazgarri diren ekitaldiak egun honetan izaten dira: sua, Salbea... Bestetik, jendeak hain gustuko duen Erremintari Dantza ere egun honetan egiten da eta, azkenik, ezin ahaztu danborrada. Iazko sustoaren ostean, aurten indartuta atera da, kantu eta konpainia berri eta guzti!



KALEAN GORA, KALEAN BEHERA

Sanjuanak ez lirateke sanjuanak San Joan barik. Hantxe egon zen herriko zaindaria osoko bilkura aretoan, harik eta herriko agintariarik udaletxetik elizara eta handik bueltan udaletxera eraman zuten arte.

SUAREN BUELTAN DANTZAN



Aurten dragoia zintzo portatu da sua pizteko orduan. Badirudi, bi urteren ostean, apur bat mantsotu dela edo... Kontuak kontu, suak ederki berotu zituen inguruan dantzan ibili zirenak. Izan ere, seigarren urtez, Erremintari Dantza ikusgarri aritu zen hurbildutako jende askoren aurrean.

gutos **MURU** **HONDA** **motorrak**

AUTO KONPONKETAK

Motorren salmenta eta konponketarako tailer berria. Uztailaren 5etik aurrera, zabalik.

Honda zerbitzu berria Deba Garaian

Araba Etorbidea, 3
Tel.: 943 79 27 16

APAINKETA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak •

Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar


MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



JAIETAN AHAZTU BARIK

Danborradak geldiu netxo bat egin zuen Iturriotz kaletik zehar jende ilara luzea kale agerraldian igaro zenean. Euskal pre-soak Euskal Herrira ekartzeko eskaera gogorarazi zuten bildutakoek.



ÑO, EDERRA ETA ORIGINALA!!!

Makina bat lan eta beldurren ostean, danborradak kaleak hartu zituen gauean. 300 pertsona kaleetan kabidu ezinda ibili ziren danborrak gogor joz. Bi kantu berri ere estreinatuz ziren: *Batasuna* eta *Maritxu*.

“Jendeak benetan apreziatzen du Erremintari Dantza”

– Seigarren urtea da dantza hau egiten duzuela. Zer irizten diozue?

– Benetan gustura nago Erremintari Dantzarekin, herrian tradizioa sortu du sei urte hauetan eta ikusten da jendeak benetan apreziatzen duela.

– Jaietan beti lanean...?

– Beno, egiten dut bai; sanjuanetan santamasetan baino gehiago, gainera, Erremintari Dantza batean, San Joan dantza bestean... Hala ere, gozatzen ditut

jaiak; beste modu batean, baina gozatzen ditut.


– Jaien inguruan, zerk ematen dizu pena handien?

– Jendea joateak. Dena dela, aurten iaz baino jende gehiago geratu da eta gehiago parte hartu du. Esku hartze honek, indartu egiten du jaiak.

Aurten, adibidez, danborradak eragin handia izan du parte hartzearen indartze horretan.



Jose Jaime Bengoa “Gomix”
Dantzaria


GASTON Y DANIELA
 Tapizeria • Moksetak Alfonbrak



Alfonbra eta oihalez gain, gazteentzako, umeentzako eta ume jaioberrientzako altzariak eta dekorazioa

Ume-kotxeak eta ume-aulkiak ere baditugu

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel.: 943 76 07 37


ARRASATEKO AITON-AMONAK

Iaz ere izan ziren eta aurten ere halaxe dira: Arrasateko pertsonarik zaharrenak. Candido Moralejak eta Lucia Prietok 98 urte dituzte. Hainbeste urte betetzeko triki-mailua zein den galdetu genien eta lan asko egitea dela erantzun ziguten. Normala da hainbeste lan eginez gero urteak pasatu behar izatea atsedean hartzen!



OHOREZKO AGURRA

Aspaldi, 50. hamarkadan herriko plazan ohorezko aureskua egiten zuten dantzariak aukuratzen zuten plazan bildutakoan artean dantza nori egin. Aurten, aldiz, parrokiatik udaletxera eramán eta hantxe laga aurretik, ohorezko aureskua eta San Joan dantzarekin agurtu zuten Arrasateko zaindaria datorren urtea arte.



EGUNA GOXO HASTEKO

Urteroko ekitaldi bihurtu da dagoeneko Arrasate Musikalen eguerdiko kontzertua. Goizean batera eta bestera ibili ziren gazte eta nagusi gehienak hantxe izan ziren, adi-adi entzuten. Belarretan eseri, gerizpean ahal izanez gero, eta ondo txalotu zituzten musikariak. Denak gustura, beraz.

24
OSTEGUNA

Eguzki Laruk berotu egin zuen eguna. Gauean, kilo erdiko dragoi txuletak aukurán. Guztia bertso doinuz alaitua. Horrelakoa izan zen San Joan eguna.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

BOLIÑETE OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

Ψ

NARE

psikologoak

Haurrak - helduak - bikoteak

RPS: 292/98

Isasi, 17 - 1 • EIBAR •
Tel.: 943 20 05 95



MAIA ETA ITURRIAGA, ATBN

Jon Maia zumaiarra eta Unai Iturriaga durangarra bertsoan aritu ziren ATBk Seberon jarri zuen platoan. Baina ez zen hori izan bi bertsolari ezagun hauen saio bakarra. Gau partean, Santa Barbarako dragoia jan eta gero, plazako taula gainera igo ziren-eta biak.



AMERIKETATIK S.FRANTZISKORA

Baina Arrasateko San Frantzisko elizara. Horixe egin zuten Lowe familiako kideek. Douglas eta Mikel ziren bi mutilak. Misiolari bezala Arrasaten eta inguruetan aritu eta gero, oraingoan musika emanaldia eskaintzera etorri ziren euren familia-ko hiru kideekin batera. Countrya eta elizako kantak abestu zituzten, San Frantzisko elizan. Jende ugari elkartu zen, gainera, saioaz gozatzerara.



A ZE ITXURA!

Pikor antzerki taldea aritu zen San Joan egunean herriko plazan eta inguruko kaleetan, *Fingilin* antzez-lana eskaintzen. “¿Y la Policía? Sigue la flecha” esaldiarekin aritu ziren lau kideak alde batera eta bestera, arrasatearren harridurarako.

KILO ERDIKO “DRAGOI” TXULETAK



450 lagunek izan zuten dragoia dastatzeko aukera, San Joan egunean. AEDk laugarren urtez antolatu zuen dragoi jana eta aurreko urtean baino jende gehixeago elkartu zen herriko plazan, sekulako ke artean eta lastargien argipean.

DULTZAINERO TXIKIAK

Arrasateko dultzaineroak kaleak alaitzen aritu ziren San Juanetan. Baina ez ziren bakarrik ibili. Ikusi bestela bi dultzainero gazte hauek.

Dultzaina faltan, ur botilak erabili zituzten gogotik putz egin eta dultzainero lanetan aritzeko. Dultzainero taldea pozik egon daiteke, jarraitzailek izango dute eta.



25

OSTIRALA

Pil-pilean bakillaoa eguerdian eta Mexiko-ko rantxera doinuak arratsalde eta gau partean. Los Perez de Nochistlanekoei entzunez, jendea aho zabalik.



KONTUZ MUTIKOAK!

San Juanetan goizean goiz ibiltzea atsegin dutenek entzierroa eta bigantxak dituzte gustuko. Gazteek eta haurrek ondo baino hobeto pasatu zuten Laubide plazan jarritako zezen plazan. Eta bigantxek ez zuten denbora alferrik galdu. Bati baino gehiagori sustu bat baino gehiago eman zioten.



GOZO, GOZO, GOZOA

Herriko hamaika elkarte gastronomikotako sukaldariak aritu ziren herriko plazan SUDC elkarteak antolatutako bakillao lehiaketan. Oraingoan Leintze elkarte lehengo, Casinobigarren eta Danok Bat hirugarren gelditu ziren, Andoni de Bedialauneta, Balentin Moreno eta Begoñak osatutako epaimahaiaren arabera.



“Bakillaoa ondo egiteko, eragitea bezain garrantzitsua da geldirik edukitzea”

— Zein da sekretua?

— Ez du sekreturik. Bakillaoa, olio eta berakatzak erabili eta bakillaoa eragin. Baina eragitea bezain garrantzitsua da geldirik edukitzea, behar duen denboran. Zazpi edo zortzi aldiz ipini eta kendu behar da suaren gainetik.

— Zenbatgarren txapelketa da?

— Aurten bigarren lehiaketa izan da,

baina ez nuen espero irabazterik. Egia esateko, uste nuen bakillaoa ez zela ondo geldituko.

— Zenbat denbora behar da bakillaoa onatzen prestatzeko?

— Bi ordu behar izan nituen nik, baina ordu eta erdirekin nahikoa izaten da. Dena dela, plazan izan ditugunak baino hobeto izaten da etxeko sua erabiltzea.

Alfredo Alonso

**Bakillao lehiaketako txapelduna
(Leintze Elkarteko kidea)**

ARAOTZ Merenderua

**Ingurune zoragarrian
lagun artean
ondo pasatzeko aukera**

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZ Merenderua
OÑATI

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikua berearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetiko

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98



ONGI ETORRI

Urte bat gehiagoz, bero-bero etorri zen Eguzki Laru. Neska-mutikoak Zaldibaren izan zituen zain eta eguerdian, eguzkia goren dagoen unean, agertu zen bera. Herriko erreka zaintzeko agindua eman zien natura zaintzaile gazteenei.



OILOLOKE XOUA

Oilarrik ez, baina oilo familia ederra elkartu zen Zaldibarren Oiloloke Xouan. Egun batez oilotegia laga eta kalean ondo baino hobeto pasatu zuten luma gorridunek, umeen gozamenerako. Dena dela, kukurruku egiten duen oilarra falta zen.



JAUZI ETA JAUZI

Baina zein ondo igaro zuten gaztetxoek Zaldibarko gaztelu puzgarrietan. Oineta-koak erantzi eta jauzi egitera. Batzuentzat, gainera, lehenengo aldia zen, neska honentzat bezalaxe. Baina aizue, oreka bazuen e!



MEXIKO, MEXIKOOOO!

Mexiko lindotik etorritako Los Perez de Nochistlan mariatxiek giro polita jarri zuten herriko kaleetan ostiralean. Iluntzean, gainera, euria egin zuen arren, Monterroneko parkean aritu ziren kontzertuan.

ARRE-ARRE MANDOKO

Laubideko zezen plazan, zezen jaialdiaz gain, ponnyak ibili ziren ostiralean. Denek nahi zuten zaldi txikietara igo eta Jonh Wayne bezala zamalkatu. Argazkian ageri den bakeroak itxura behintzat bazuen, ezta?



ARTOUR TRAVEL
bidaiak

- Galizia, 7 egun 48.700 pta
- Praga, 8 egun 72.200 pta
- Egipto, 8 egun 110.900 pta
- Dominikar Errepublikan, 7 egun 168.200 pta

Maixu Arano, 2
Portaloian
Tel.: 943 79 32 22
20500 Arrasate

**Hainbat eskaintza
ezin hobek
Artour Travel-en!!!**

Jaixen
bixamonaz
gozau eta

oporrak disfrutau

Arrasateko Ikastola





“Gauean goiz oheratzen gara”

— Noiztik zabilzate herriko jaiak alaitzen?

— 1979an hasi ginen, eta orduz geroztik gabil-tza.

— Zenbat dultzai-nero zarete taldean?

— Sei, baina beste bost ikasten ari dira. Orain toki berri baten zain gaude, ikasleei erakutsi eta hantxe jotzeko.

— Zer egiten duzue, goizean goiz jaikitzeko?

— Gauean goiz oheratzen gara, gero goizean dianarekin kaleak alai-tzeko.

— Noiz arte trote hau?

— Luzaroan.

— Dultzaina eta gai-taren artean badago alderik?

— Guk gaita deitzen diogu instrumentuari, bai-na Gipuzkoan dultzaina ere deitzen diote askok.

— Sanjuanetatik zer duzue gustukoen?

— Dianak eta erral-doiak.

— Eta zer falta dute Sanjuanek?

— Jendearen parte hartzea.



Arrasateko dultzaineroak

REQUIEMA AMAIAN

Bilboko Elkarte Korala lehen aldiz etorri zen Arrasatera San Juanetan, Goikobalu abesbatzak gonbidatuta. Jende mordoskaren aurrean Johannes Brahmsen *Requiem* lana eskaini zuen, Amaia antzokian. Zuzendari lanetan Gorka Sierra aritu zen. Bakarlarria, berriz, Olatz Saitu Iribar izan zen. Baritonoa Jose Manuel Diaz eta pianoan Ruben Fernandez eta Gayane Scharluyan aritu ziren, lau eskutara.



DOTOREZIA ETA LASTERTASUNA

Sekulako ikusmina sortarazi zuen larunbatean eta igandean egin zen karreretako auto klasiko rallyak. 343 kilometroko lasterketa izan zen. Parte hartu zuten 23 autoetatik 16 heldu ziren helmugara igandean eta horietatik 9k baino ez zituzten bete epaimahaiak ezarritako baldintzak. Azkenean, Pedro Palacios aita-semeek lortu zuten garaipena.

Dietetika eta Nutrizioa Lorea Aramburu Dk.


- Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatu.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomatu.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Azido urikoa
- Loditasuna
- Arteria hipertentsioa
- Diabetesa
- e. a...

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA
Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16



HANDI, HANDI, HANDIAK

Hasi naiz handitzen, hasi naiz handitzen... Eta a zer nolako garaiera hartu zuten larunbatean Arrasateko Erraldoi eta Kilikien lagun egitera etorri ziren Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako erraldoiek!
Jendea ere pozik eta gustura handikoteen artean.

26
LARUNBATA


Erraldioen eta kilikien egunean atera zen Loiola-Arrasate karreretako auto klasiko-en rallya. Kaleak jendez gainezka egon ziren goizez zein arratsaldez.

AZKENENGO ENTZIERROA

Egunero legez, jende dezente elkartu zen Laubideko zezen plazan, San Juanetako azkenengo entzierroaz goatzera. Giroa ederra izan zen zezen plazaren barruan, baina harmailetan ere

Rosik jarri zuen gatza eta piperra, bere turutak saltzen.


Hori bai umorea!



GRONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Ezusteke finala

10

eta 1. Horixe izan zen aurtengo Zaldibarko txapelketako finalaren emaitza. Irabazleak, berriz, iazko berberak: Aldibi taldekoak! Arrasatearren eta atxabaldarren lehia, etxeokak nagusitu ziren.

Laburrak

■ MEREZITAKO GARAIPENA

Aldibik merezita lortu du aurtengo Zaldibarko futbito txapelketako garaipena. 10 eta 1 irabazi zion Orlando Piratas taldeari. Iazko txapelduna eta orain bi urteko finalista aritu ziren aurrez aurre. Dena dela, oraingoan, arrasatearren eta atxabaldarren arteko norgehiagokan arrasatearrak izan ziren onenak eta bigarren zatian batez ere, jaun eta jabe.

■ LEHEN ZATIAN

Hasieratik hasi ziren bi taldeak kementsu, baina Aldibikoek hasieratik jarri nahi izan ziren aurretik eta berehala sartu zuten lehen gola.

Kotek sartutako golari esker aurreratu ziren iazko txapeldunak. Baina aldeak ez zuten askorik iraun. Izan ere, Anderrek berdinketa lortu zuen. Minutuak pasatu eta lehen zatiaren amaiera baino lehen, Aldibikoak berriz aurre-

ratu ziren. Oraingoan ere Kotek lortu zuen gola. Lehen zatia, beraz, 2 eta 1 amaitu zen.

■ BIGARREN ZATIA

Bigarren zatia hasi eta berehala, Imanol Karmonak sartu zuen gola. Honen ostean maki-na bat gol iritsi ziren.

Horietako lehenengoa Aranburuk lortu zuen, Imanolek berak egindako pase bati esker. Arrasatearren bosgarrena Jon Madinabeitiak lor-

tu zuen. Seigarrena penalti bati esker lortu zuten, Inazio Garroren jaurtiketari esker, hain zuzen ere. Baina festak aurrera egin zuen eta festa horretan Juan Luis Aranburuzabala erabakigarria izan zen. Izan ere, ondorengo gol guztiak, lau hain zuzen ere, berak lortu zituen.

Azkenean, beraz, hamar eta bat arrasatearren alde. Iazko txapeldunek txapelari eutsi zioten.



Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Zure begiek
laster
ikusiko dute

ZAFIRA



OPEL

AURTENGO SARITUAK

Zazpi jokalaria saritu zituzten Zaldibarko aurtengo txapelketan Bonba Taldieko kideek. Honako hauek izan ziren: Mikel Unamuno (Naranja Mecanica), Oscar Mateos (Naranja Mecanica), Jon Diez (AC Surkos), Roberto Karabias (Petroak) eta Jon Larrañaga (Komando Alpargat).

Hauek jokalaria nabarmenenen saria eskuratu zutenak, baina izan ziren beste hainbat sari ere. Horien artean atezain onenaren saria, hain zuzen ere.

Juan Carlos Donoso, Lontxo Tabernako atezainak irabazi zuen sari hori.

Horrez gain, Vicente Davila zenari plaka oroigarri bat eman nahi izan zioten antolatzaileek. Izan ere, Vicente Zaldibarko txapelketako jokalaria zen eta hori gogoan izan zuten Bonbakoek.

Osterantzean, elastikoak, kopa, txanpana eta urdai azpikoa jaso zuten irabazleek eta azpitxapeladunek. Talde biek Kanpazar alderajo zuten, Saran zuten-eta merezitako afaria.

BITXIKERIA

Sari banaketan izan zirenek eta gero ere *Mondrasport* saioa ikusi zutenek, ekitaldia zergatik atzeratu zen jakiteko parada izan zuten. Badirudi Bonba Taldieko kideek lotsa diotela mikrofonoari eta inork ez zuela taula gainera igo nahi sari banaketa aurkeztera. Erabaki bitartean danborrada iritsi zen eta azkenean zozketaz hautatu zuten ausartena.


Datorren urteari begira hori ere aurrez lotu beharko dute antolatzaileek.

**Emaitzak**

Naranja Mec. 4 - Lontxo Tab. 5
Orlando Piratas 1 - Aldibi 10

Sailkapena

- 1- Aldibi
- 2- Orlando Piratas
- 3- Lontxo Taberna
- 4- Naranja Mecanica
- 5- Branka Taberna
- 6- AC Surkos
- 7- Txantxiku Kirolak
- 8- Petroak

ARRASATE  **KIROLAK**

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

IV Nesken Futbito Txapelketa**TXANPI 2 TXAPELDUN**

Txanpi 2 taldea izan da Nesken Futbito Txapelketako irabazlea. Txanpi 1 eta 2 aritu ziren elkarren aurka, nor baino nor. Eta partida berdinketan amaitu zen. Azkenean bina egin eta gero, penaltietan erabaki behar izan zen garailea eta Txanpi 2k lortu zuen txapela.

Beste taldeei dagokie-

nez, Pilpil Efketue eta Ieup taldeek toki bat aurreratzea lortu zuten sailkapenean eta 3. eta 5. amaitu zuten, hurrenez hurren. Laugarren Izen Bakuak taldea gelditu zen.

SARI BANAKETA

Oraindik ez da sari banaketarik egin, baina lehenengo sarituek Arrasate Kirolakek emandako kirol ekipamen-

duak jasoko dituzte. Gainerako kirolari guztiek, oroigarri bana.

Emaitzak

Ieup 8 - Porrusalda Forever 2
Gora Gu 11 - Skarlets 5
Pilpil Efketue 13 - Izen Bakuak 5
Txanpi 2, 2 - Txanpi 1, 2

Sailkapena

- 1 - Txanpi 2
- 2 - Txanpi 1
- 3 - Pilpil Efketue
- 4 - Izen Bakuak
- 5 - Ieup
- 6 - Porrusalda Forever
- 7 - Gora Gu
- 8 - Skarlets
- 9 - Nuze
- 10 - @z.kom

**ALFONBREN ALMAZEN BERRIA**

- Hemengo eta inportazioko alfombra eksklusiboak
- "Generazio berriko" bilduma

Den-dena almagaztenko prezioetan

BERGARA • Renault-en ondoan • AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

DENDA BERRIA

- Telak metroka eta pisura
- Etxerako behar duzun guztia: Gortinak (guk geuk egindakoak), izarak, izarak egiteko oihalak, nordikoak, tapizak...

ORDUTEGIA

Astelehenetik
Zapatura:
10:00 - 13:00 eta
16:00 - 20:00

Tel./Faxa:
943 76 72 52

IGERIKETA Espainiako txapelketa



Ane Lopez de Bergara eta Eneritz Jauregi igerilari arrasatearrek Ourensean dira osteguna ezker. Ordiziako igeri taldearekin Espainiako taldekako igeriketa txapelketa arituko dira larunbat eta igandean.

Anek ur gaineko 1.500, 800, 400 eta 200ko lasterketan arituko da. Eneritz, berriz, 50 apnea, 100 eskafandra eta ur gaineko 50 eta 100 mko lasterketan.

GIMNASIA ERRITMIKOA Euskal Herriko txapeliduna



Maite Alves arrasatearrak Euskal Herriko gimnasia erritmikoko txapelketa irabazi zuen ekainaren 12an, Ermuko kiroldegian. Arrasateko gimnasia erritmikoko taldeak izan zuen ordezkari bakarra izan zen. Euskal Herriko bosgarren ligako txapela lortu zuen gazte mailan. Uztaiaz eta xingolaz aritu zen eta banakako txapelketa lehenengoa gelditu ondoren, txapela jaztea lortu zuen.

Udanarako I. igoera

Udanarako I. igoera jokatu da igandean, uztailaren 4an. Entrenamenduak goizeko 10:00etan izango dira eta lehenengo txanda, 11:30ean. Bigarrena, berriz, 12:30ean. Euskal Herriko RAC taldeak eta Nervion Escuderiak antolatu duten igoera honean asteazkenean 50 parte hartzaile zeuden izena eman-

TXIRRINDULARITZA Infantilak ondo amaitu



Infantil mailako Arrasate Kirolak taldeko txirrindulariek lehen garaipena eskuratu zuten denboraldiko azken lasterketan. Markel Lasagak lortu zuen garaipena Urretxun jokatu zuten lasterketan. Lasagak lortu du azkenean denboraldi osoan bilatu duen garaipena, izan ere, birritan bigarren eta beste bi aldiz hirugarren izan da arrasatear gazte hau. Zorionak, beraz, Markeli eta bere taldeari.

Eta zorionak baita Jon del Riori. Euskal Herriko 23 urtez azpikoaren selekzioan egon da Born Jay afizionatu mailako txirrindulari taldeko tolosar hau. Zamorako Itzulian esprint berezien elastikoa lortu zuen. Astelehenean, bestalde, Asteasun aritu zen del Rio eta hirugarren izan zen eta Jabier de Miguel bere taldekidea bigarren izan zen asteartean Irun-go klasikoan.

JMAko bigarren urteko haur mailakoak, Urnietara abiatuko dira larunbatean. Joan den asteburuan Agustin Urkola oroimenezkoan aritu ziren. Lasterketa gogorra sueratu zen. Azkenean Aitor Frutosek eta Aitor Pavonek bakarrik lortu zuten amaiteza.

da. Ikusleek 700 pta ordaindu beharko dute eta errepideak goizeko 09:30ean itxiko da autoentzako.

Faborito nagusi Aitor Zabaleta da, Bergarako pilotoa. Berarekin batera arituko da Oñatiko Aitor Ramirez, bere BMW 3rekin. Ramirez, gainera, probako antolatzailea da.

San Andres azpitzapeldun



Mutikoek taula erraldoian aritzeko aukera ere izan zuten.

Escola arteko I. Xake Txapelketa eta herri arteko San Juanetako III. Xake Txapelketa jokatu ziren San Joan bezperako asteburuan Arrasaten. Haurren txanda goizean izan zen eta frantziskotarren arketan aritu ziren.

21 neska-mutikok hartu zuten parte eta banaka eta taldeka lehiatu ziren. Banaka, benjamin mailan Xabier Jua-

risti izan zen garailea eta taldeka San Frantzisko Xabier ikastolako taldea. Alebin mailan, bestalde, banaka Asier Ormaetxeak irabazi zuen eta taldeka, berriz, La Merced ikastetxeko taldeak. Herri arteko San Juanetako txapelketa, bestalde, Durangoko lauko-teak eraman zuen. Arrasatearrak bigarren izan ziren puntu erdi gutxiagorekin.

Aita-semeak bigarren



Fernando eta Unai Larrañaga aita-seme arrasatearrek bigarren saria eskuratu zuten aurten goitibehera txapelketa. Arrasatearrek ezin izan zuten ezer egin Iurretatik etorri zen bikotearen aurka. Kepa Etxanobe eta Asier Alberdiren aurka. Hamaika goitibehera aritu ziren IV. txapelketa eta

Euskal Herriko goitibeheren ligako 5. txanpan. Udalako jaitziera ligako etaparik hobere-netariko dela esan zuten parte hartzaileek.

Giroa, besteetan bezala, aparta izan zen. Istripu bat izan zen arren, 6 zenbakia zeraman bikotearena, ez zen larria izan eta bikotea onik atera zen.

Saioako kirolaririk onenaren saria

Larunbatean jokatu da Eskoriatzako kiroldegian, Saioa Karate eskolak antolatu duen kirolari onenaren saria. Arrasateko karatekez gain, Bergara, Eskoriatza eta Oñatikoez hartuko dute parte. Antolatzaileen arabera, 50 bat kirolari, horietatik 30 Saioa eskolakoak.

Lehiaketa hiru eratan banatu da: kata, sanbon kumite eta lehiaketako kumitea. Lehenengoan banaka arituko dira eta bigarrenan katarren aplikazioak erakutsi beharko dituzte. Hirugarrena, berriz, borroka izango da. Parte hartzaileak 14 urtetik beherakoak eta hortik gorakoak izango dira.

Sari honen helburua da karatea egiten duten haurren gurasoei erakustea euren semek-alabek zer ikasi duten. Eta bide batez, Saioa Karate



Lehiaketa Eskoriatzako kiroldegian, 11:00etan.

eskolak izan duen denboraldi bikainari amaiera jartzea. Izan ere, Erik Martinek Espainiako txapelketan lortu zuen hirugarren tokiari Euskal

Herriko txapelketan infantil eta gazte mailako karatekek lortu zituzten bigarren eta hirugarren tokiak gehitu behar zaizkie.

Onenak garaile

San Juanetako Eskuz Bina-kako XX Pilota Txapelketan hiru norgehiagoka jokatu ziren. Benjamin, alebin eta infantil mailako bina bikote.

Benjaminetan Fernandez eta Bolinaga aritu ziren, Elortza eta Arregiren aurka. Gasteizko Santa Lutzia txapelketako irabazleak galtzen hasi ziren, baina azkenean Elortza eta Arregi gailentzea lortu zuten, 22 eta 15.

Alebinetan Gorka-Otxoa eta Agirre-Lakuntza aritu ziren eta 22 eta 13 irabazi zuten Gorkak eta Otxoak, arazorik gabe.

Infantiletan lehia handia izan zen Abarrategi-Agirre eta Axpe-Jimenezen artean. Izan ere, bigarrenak 21 eta 17 irabazten joan ziren, baina azkenean Abarrategi eta Agirrek 5 tantu segidan egin zituzten eta txapelarekin egin ziren.

Ikusmin handia klasikoaren rallyan



23 auto klasiko aritu ziren Loiola-Arrasate Hiria Rallyan.

Ikusmin handia sortu zuen igande eguerdian karreretako auto klasikoaren Arrasate Hiria Rallyaren amaierak. Rallyak 343 km zituen. Abiaduraz gain, nabigazioa eta erregularitatea baloratzea zen.

Arrasate Hiria rallyaren VIII. aldi honetako irabazleak Pedro Palacios aita-sembakiotarrak izan ziren. Seat Sport 1600 batekin aritu ziren.

Bigarren Joseba Ormazabal eta Aintzane Bideluze bergararrak izan ziren eta hirugarren Felix Martirikorena eta Jose Manuel Reguero areetatarrak.

Rallyaren arrakasta ikusita, IX. aldian pentsatzen ari dira dagoeneko eta Luis Rodriguez antolatzaileak adierazi bezala, "seguru asko Arrasaten hasi eta amaituko da".

Mondra, harrobi galanta



Jon Lasagabaster, David Espinosa eta Iker Lazpiur.

Jon Lasagabaster, David Espinosa eta Iker Lazpiur haur mailako Mondra taldeko futbolariak fitxatu nahi ditu Alaves taldeak.

Hirurak aritu dira Gasteizko taldearekin jokatzeko eta ziur asko, Errealak onartzen baldin badu, aukera izan dezakete datorren den-

boraldian Gasteizen aritzea. Izan ere, Mondrak Errealarekin duen hitzarmenaren arabera, Arrasateko jokalariek talde txuri-urdinera joateko aukera dute. Baina baita mena lortzen badute, datorren denboraldian Gasteizen arituko dira. Zorionak, bada, hiruerei!

Aldibi ZORIONAK!!



MILESKER ZUEN KONFIANTZA ALDIBIRENGAN JARRI DUZUEN GUZTIOI
ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigarrola, 1 • Arrasate • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A



Presta zaitez uda honetarako!
Eroso ibiltzeko behar duzuna daukagu!

BAINU JANTZIAK:

- Bularrak ondo eusteko.
- Modako diseinuak.

SANDALIAK:

- Alemaniatik ekarritakoak.
- Atsedenerako plantillekin.

ZAPATAK:

- Errejilladunak.
- Orto Lagunek esklusiban enkargatutakoak.



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

OXEL ZABALO (AIRE ZABALEKO MARGO LEHIAKETAN SARITUA)

“Aire zabalean marraztea gustatzen zait gehien”

Oxel Zabalok 9 urte ditu, eta San Frantzisko Xabier ikastolan ari da ikasten. Datorren ikasturtean bosgarren maila hasiko du Oxelek, baina ikasteaz gain, margotzeko astia ere hartzen du. Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatutako aire zabaleko 18. pintura lehiaketan, esate baterako, herrikoen artean lehen saria eskuratu zuen gaztetxoia izan zen. Sail berean, Eluska Zabalo bere arrebak ere lehenengo saria eskuratu zuen. Berak irakatsi dizkio Oxeli, gainera, marrazteko zenbait teknika.

— **Noiztik duzu marrazteko zaletasuna?**

— Txikitxotatik dut marrazteko zaletasuna. Betidanik gustatu izan zait marraztea. Nire arrebak ere asko marrazten du, eta berari ikusita-edo niri ere marrazteko zaletasuna sartu zait. Aitak ere gustuko du marraztea, gainera, eta etxean giro hori oso barrutik bizi dugu.

— **Lehiaketan zer marraztu zenuen?**

— Altamira auzotik San Frantzisko Xabier ikastolaren zati bat marraztu nuen, eta baita handik ikusten den mendi puska bat ere. Udal pilotalekuko lanak ere marraztu nituen.

— **Zein kolore erabili dituzu margolanean?**

Batez ere kolore ilunak erabili ditut, horiek gehiago gustatzen zaizkit eta.

— **Zergatik aukeratu zenuen leku hori?**

— Nire arrebak ere leku hori hautatu zuen, eta nik hari jarraitu nion.



Nik Monterrongo parkea marraztu nahi nuen, baina aitak ez zidan gomendatu hori egitea.

— **Zer gustatzen zaizu gehien marraztea?**

— Aire zabalean marraztea gustatzen zait gehien. Bodegoirik ez dut inoiz marraztu, eta koadroak ere, egia esan, gutxi marraztu ditut. Hau hamargarrena edo, izan da.

— **Non ikasi duzu marrazten?**

— Eluskak erakutsi dizkit marrazteko teknika batzuk. Oso irakasle ona da, eta oso ongi marrazten du, gainera. Marrazten dituen ia margolan guztiak gustatzen zaizkit.

— **Ikastaroren batean ibili zara inoiz?**

— Ez. Pasatu izan zait burutik ikastaroren batean hastea, baina ez dakit. Beharbada datorren ikasturtean hasiko naiz.

— **Beste lehiaketarik irabazi duzu?**

— Bai. Aretxabaletan bigarren saria eskuratu nuen aire zabaleko lehiaketa batean, duela urtebete edo. Beste sari bat, berriz, Gasteiz inguruan irabazi nuen.

— **Beti marrazten dituzu margolanak?**

— Ez. Paperean ere marrazten dut, batez ere arkatzarekin. Akuarelekin, ordea, ez naiz ia ezer aritu. Margolanak egiterakoan, mantxa egiteko pintzel handiekin aritzen naiz, eta margotzeko normaltxoagoak erabiltzen ditut. Bestalde, jeneralean egurrean marrazten dut, eta ez oihalean.

— **Nagusi izatean, ikusten duzu zeure burua margolari?**

— Ez. Ez dut margolari izan nahi. Nahiago dut margolaritza zaletasun bezala eduki. Nagusi izatean astronauta izan nahi nuke.

— **Margolan batek zein baldintza bete behar ditu polita izateko?**

— Koloreak ongi uztartuta eduki beharko lituzke. Bestalde, margolan abstraktoak politagoak dira, nire ustez.

— **Margolanez gain, beste estilorik erabiltzen hasiko zara?**

— Beharbada aurrerago. Margolanak ere ez ditut asko egin, eta egindako guztiak, bat izan ezik, aire zabalekoak izan dira. Lehenengoan, berriz, garajea marraztu nuen.


“Marrazteko teknika batzuk Eluskak erakutsi dizkit. Oso irakasle ona da”



Mikel Lezamiz.



Maria Agirre.



Mikel Irizar.

Deba Garaiko udalen eratzea ATBn

Arrasate Telebistak programa berezia prestatu du larunbaterako. Egun horretan, uztailak 3, Arrasateko eta Deba Garaiko udalbatza guztiak eratuko dira, joan den ekainaren 13an izandako emaitzen arabera. Eratze ekitaldiak eguerdian hasiko dira ia herri guztietan. ATBk, ostera, ordu erdi lehenago ekingo dio programa bereziari.

Saioa zuzendu eta aurkezten, joan den ekainaren 13an izan zen talde bera arituko da. Maria Agirre kazetariak aurreko lagun berak izango ditu ondoan: Mikel Irizar eta Mikel Lezamiz. Bozketak egunean hiru orduko saioa egin zuten zuzenean, jende askok gogoangarri irizti dion gau hartan. Larun-

batean ere ordu eta erdiko saioa egingo dute.

TALDE OPAROA

Hiru aurkezleen atzean 20 laguneko taldea osatu da, Deba Bailara osatzen duten herri guztietan gertatuko denaren berri emateko prest. Berriemaileek telefono bidezko loturak egingo dituzte. Horrezaz

gain, bideoak, elkarrizketak, grafikoak eta egunak emango dituen bitxikeriak jorratuko dira.

Lehenengo aldiz, bada, ATBk saio berezia egingo du Deba Garaiko eremua hartuta. Ekainaren 13koa gustatu bazitzaizun, piztu telebista uztailaren 3an eta ikusiko duzu zer den ona!


■ ATBren programazioa

| LARUNBATA, 3 | IGANDEA, 4 | ASTELEHENA, 5 | ASTEARTEA, 6 | ASTEAZKENA, 7 | OSTEGUNA, 8 |
|--|--|---|--|----------------------------|---|
| 11:30 Deba Garaiko udalbatzen eratzea. | 13:30 Deba Garaiko udalbatzen eratzea. | 13:30 Albiste aurrerapena. | 13:30 Albiste aurrerapena. | 20:00/20:30/21:00 Berriak. | 20:00/20:30/21:00 Berriak. |
| 13:00 San Juanetako programarik interesgarrien errepika: San Juanak 99, Karaokea, Kaleidoskopia Seberon, Mariatxiak. | 15:00 San Juanetako programarik interesgarrien errepika: San Juanak 99, Karaokea, Kaleidoskopia Seberon, Mariatxiak. | 13:35 Deba Garaiko udalbatzen eratzea. | 13:35 Sanjuanak 99, Mariatxien kontzertua. | | OSTIRALA, 9 20:00/20:30/21:00 Berriak. |
| | | 20:00/20:30/21:00 Berriak. | 20:00/20:30/21:00 Berriak. | | |
| | | 21:30 San Juanak 99, Mariatxien kontzertua. | 21:30 Sanjuanak 99: Bertsolariak. | | |

ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

GRUPO **RKUZ** FAGOR

ALTZARIAK



Araba Etorb. 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte, 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Salouko Pinedan estudio berriztua salgai, altzariak eta guzti. Puerta del Mar etxe multzoan. Pizsina, tenisa eta jolastokiaren ondoan. 3.500.000 pta. Tel.: 943 79 11 29.

• Etxebizitza bat salgai Santamainan, 70 m², trasteroa, 3 logela, komuna eta sukalde-jangela. Berriztua dago eta berogailu partikularra dauka. Tel.: 943 79 74 41.

• Etxebizitza salgai Zarugalden. Tel.: 630 980 857.

• Etxebizitza salgai, Anboto kalea 10-4. Tel.: 630 52 21 43.

3. Errentan emateko

• Duplexa alokagari Cambrilsen. Igerilekua eta hondartzatik 50m.ra. San Juanetan edo irailean. Tel.: 943 79 83 62. Gaeuz.

• Torrevejan apartamentua alokagari. Bi logela, jangela-egongela, etab. Hondartzatik 100 m.ra. Tel.: 943 77 03 85.

• Bungalowa alokagari, hondartzatik oso gertu. Abuztua eta iraila. Oso handia. Tel.: 943 79 52 94. Mariano.

• Etxebizitza alokagari Donostian, Antigua auzoan, hondartzatik 200 m.ra, abuztuan eta irailean. Tel.: 943 79 82 05. Gaeuz, 21:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokatzen dut uda honetan, Laredon. Tel.: 943 79 52 80.

4. Errentan hartzeko

• Lau gaztek etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 50 85. Igor.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko genuke. Tel.: 656 41 60 93 eta 94 673 71 72. Arkaitz.

• Etxebizitza errentan hartuko genuke lau ikaslek. Ahal bada, Eskola Politeknikoaren inguruan. Tel.: 943 77 16 61. 104. logela, 21:00etatik 22:15era.

• Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

• Lau ikaslek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 39 46 33.

• Errentan hartzeko etxebizitza behar da Arrasaten, lau ikaslerentzat. Tel.: 94 442 17 87. Ander.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko lagun euskaldun bat behar da. Tel.: 943 79 93 03.

• Pertsona bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 27 64.

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Arratsaldez. Irene.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Lankelen (Roneo) Tel.: 943 79 01 71. 19:00etatik 22:00etara.

9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagari, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• 60m²ko toki baten bila bazabiltza bulegoa, ile apaindega edo antzeko zerbaiz jartzeko, deitu 943 79 18 95 telefonora. Berogailua dauka eta Arrasate hoteletik gertu dago.

14. Errentan emateko

• Lokal komertziala alokatzen da Arrasateko erdigunean. Tel.: 600 65 68 15 edo 630 55 16 29.

• Txabola alokatzen dugu Opakuako mendietan, inguruan 5.000 m² ditue. Tel.: 945 30 10 27.

LANA

17. Eskaintza

• Emakume bat gertu plantxa egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

• Neska euskalduna San Juanetan taberna batean lan egiteko prest. Tel.: 943 79 01 06.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Andra euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

18. Eskaerak

• Zerbitzariak behar dira jatetxean aritzeko. Tel.: 943 78 35 26.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 22.

• Zerbitzaria behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Tel.: 945 44 50 95.

• Pertsona heldua zaintzeko norbait behar da. Tel.: 943 79 66 96. (19:00 - 22:00).

• Tabernarako zerbitzaria behar da. Tel.: 945 44 50 86.

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tel.: 943 79 21 15. Aintzane.

• Umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko neska behar da. Beharrezkoa izango du autoa. Tel.: 943 71 50 92.

• Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Larunbat eta igandetan deitu. Tel.: 943 79 11 46.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskolak emango dituztailean. Tel.: 943 79 18 70.

• Neska batek UBI arteko eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 77 15 36. Zalaoa.

• Lehen Hezkuntza eskolak emango nituzke uztailean, ingelesa barne. Tel.: 943 79 85 71.

• DBHko 3. maila arteko eskola partikularrak emateko prest, uztailean. Tel.: 943 79 04 84. Lorea.

• Enpresa zientzietan lizentziadunak eskolak emango lituzke udan, euskaraz edo erdaraz (goi maila eta erdi mailako ikasleei). Tel.: 943 79 86 06.

• Enpresa Zientzietan lizentziaduna den neska esperientziadunak 16 urtetik beharokoentzako eskolak ematen ditu. Tel.: 943 79 06 39.

21. Eskaerak

• Ile apaindegiko titulua duen neska prest lana egiteko. Tel.: 943 79

53 57 edo 943 17 02 43. Maider, gauzez deitu.

• Abuztuan ingelesezko eskolak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 96 69. 22:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• 1998ko Derby Senda SM bat salgai, 200.000 pta.tan. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45. Raul.

• Ford Sierra 2.000 CL, SS-Z salgai. Tel.: 943 79 95 01.

• Vespino NLX ia berria salgai. Tel.: 943 79 60 81. Jose Mari.

• Opel Corsa salgai. 80.000 km. SS-V. Egoera onean. Tel.: 943 58 50 17.

• Volkswagen combi bat salgai, guztiz hornituta. Tel.: 943 71 49 15. 21:00etatik aurrera.

• Rover 216,SSY saltzen dut, 200.000 pta.tan. Tel.: 943 79 37 99. Mikel. (08:00 - 15:00).

• M-SS matrikula duen Ford Escort XR3 Injection autoa salgai. 350.000 pta.tan. (negoziagarria). Egoera onean. Tel.: 943 77 13 91. Gauzez.

• Fiat Regatta 70 SS-AB salgai 200.000 pta.tan. Negoziagarria. Tel.: 943 79 83 72. Gauzez.

• Derby Senda L-6 50 cc, mistoa salgai. Egoera onean. 160.000 pta. Tel.: 943 79 05 95. 10:00 - 13:00.

• 1991 urteko Clio 16v salgai, 90.000 km. estra, 825.000 pta. Tel.: 629 30 28 17.

• Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean. Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxeko: 943 76 12 66. Xabi.

DENETARIK

26. Saldu

• Kanpin denda salgai. Bi logela, estalkia eta egongela txikia ditu, berria dago eta ipintzeko erraza da. Tel.: 943 74 05 37. Mila.

• Karabana salgai, Roller 390. Tel.: 943 77 05 22. Iluntzean deitu.

• Mendiko bizikleta salgai, 8 urteko ume batentzat. Tel.: 943 39 46 33.

• Minolta X500 argazki kamera (50 mm), Minolta auto 280PX flasha, eta 135 mm.ko objektiboarekin saldatzen dut. Egoera bikainean dago. Tel.: 943

79 06 15/946 58 31 92.

• Area Pro 2 markako gitarra elektriko salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Estalkia oparitu egingo dut. Tel.: 943 79 73 30. Ekain. 21:00etan deitu.

• Lau lagunentzako Adria 3,75 m.ko karabana salgai. Abantze eta guzti. Egoera onean. Tel.: 943 74 07 85.

• Errekadista negozioa salgai, furgoneta eta ohiko bezeroak barne. Prezio ona. Tel.: 943 76 09 12.

27. Erosi

• Disko singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

• Lau katakume oparitzeko. Nahikoa, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu asteleheneetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

31. Galdu

• Umearen bota zuria galdu nuen joan den ostegunean, hilaren 20an. Munar, Arrasate pasealekua eta erdialdea bitartean. Tel.: 943 79 69 68.

• Joan den astean emakumezko erloju bat galdu nuen erdialdean. Korrea marroia eta esfera zuria du. Aurkitu baduzu, dei egin 943 79 03 29 telefonora.

• Betaurreko graduatu batzuk galdu nituen San Juan egunean. Tel.: 943 79 09 18.

32. Aurkitu

• Orain dela hilabete lepoko zapi bat aurkitu nuen, Urbarri etorbidean. Tel.: 943 79 34 61.

• Betaurreko batzuk agertu dira Larra-gain kaleko garajearen. Tel.: 943 79 86 28.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.

EDERTASUNA ETA OSASUNA: EGUNEROKO ZAINKETAREN ETA NORBERAREN ONGIZATEAREN EMAITZA.

Lirain Zentruan zure morfologia ezagutu eta desoreka estetikoaren arrazoia aurkituko dugu. Orain, gainera, **zure energia diagnostikoa dohainik** izango duzu.

Lirain Zentruan kalitate eta profesionaltasun handiko tratamenduak aurkituko dituzu:

- Drenaje linfatikoa
- Bainuterapia
- Elektroestimulazioa
- Usaintzerapia
- Tratamendu pertsonalizatuak:
Zelulitia, gorputz, bular eta gluteoaren gogortzea, aurpegi tratamenduak, aknea, zimurrak, estresa, zahartzearen aurkakoa.



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

Zutikako eta etzandako
solariumak, dutxa eta guzti
10 saio + 1 doan = 9.000 pta.



Sanjuanak agurtzeko, ezin egokia antzinako argazki zahar bat erabiltzea baino. 1955. urtekoa da hau. Hirukotea Biteri Eskola zaharren aurrean harrapatu zuten argazkian.

Ezkerretik hasita, Daniel Balanzategi "Caminero", Iban Ramos "Ministro" eta Prudencio Jimenez "Chinche" ditugu hemen.

Lagun talde berekoak ziren eta Daniel Balanzategi Afrikan soldadutza egitetik etorri zela ospatzen ari ziren. Primeran ospatu ere lizentzia hori!

Orduan ohitura zen argazkilarik profesionalak euren kamerekin kalean ibiltzea argazkiak ateratzen, artean ez zegoen-eta kamera larregirik. Holakotxe bat aprobetxatu zuen hirukote honek oroimenerako argazki hau ateratzeko.

*Argazkia eta berriemailea:
Daniel Balanzategi.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Montura + Kristalak



**7.900 pta.tik
aurrera**

Eguzkitarako betaurreko graduatuak



**3.900 pta.ko
plusa**

Ukipen leiarrek



13.500 pta

Hilero bi poltsa ukipen leiarrekin
(12 leiar) eta mantenimenduko
likidoak prezio berezi honetan.

Kalitatea saltzen dugu



**INSTITUTO
OPTICO**

Erdiko kale, 22 - Tfnoa.: 943 79 71 68

Hiper Eroski - Tfnoa.: 943 79 78 26

ARRASATE

Andra Mari, 8 - Tfnoa.: 94 620 29 86

Grupo San Ignacio - Tfnoa.: 94 681 84 92


DURANGO

Erdiko kale, 21 - Tfnoa.: 943 60 31 54

MUTRIKU

ikKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR 